

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoko tokiko maparen berrikuntzari ekingo dio legealdi honetan

Horrela adierazi du Jimenez lehendakariordeak, gaur, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren goi-karguekin egindako bileran

Martes, 09 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak Nafarroako tokiko mapa legealdi honetan berritzeko borondatea agertu du gaur. Horrela adierazi du lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilariak, Roberto Jimenezek, gaur, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren (FNMC) goi-karguekin egindako bileran, burua Jesus Maria Garcia lehendakaria izan dela.



Baztan harana

Topaketa "emankortzat" hartu du bi zuzendariak, eta gai horrez gain, tokiko erakunde batzuen finantza-egoera, 2013-2016 Tokiko Inbertsio Planen etorkizuna, gehien zorpetutako udalen arazoak gaur egungo planaren lanak finantzatzeko, idazkarien eta kontu-hartzaileen egoera, udalen ordainsariak eta Zezen Ikuskizunen Arautegia ere aztertu dituzte.

Jiménezek adierazi du ados jarri dela tokiko erakundeekin; tokiko maparen berrikuntzan bereziki. Gai horri buruz hauxe adierazi du: "Ezinbestekoa da beharrezko berrikuntzak egitea, udalen gastua zentzuzkoa izateko eta herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak hobetzeko". Halaber, nabarmendu du, gaur egungo egoera ekonomian bereziki beharrezkoa dela berrikuntza egitea, helburu horiek lortzeko".

Tokiko korporazioetako kideen ordainsariei dagokienez, kontseilariak taula batzuk egitea proposatu dio FNMCri, orientagarriak izan daitezen erakundearen diru-sarrera arrunten eta biztanleen arabera parametro horiek finkatzeko.

Bestalde, Jimenez lehendakariordeak adierazi du foru Gobernu "formula hobeak" bilatzen ari dela lau urteko Planean onartutako lanak dituzten tokiko erakundearen arazoa konpontzeko, ezin baitute krediturik hitzartu, diru-sarrera arrunten % 75eko muga hori gainditzen dutelako. Hori horrela, hauxe adierazi du: "Gobernu Planean onartutako baliabideak onuradunei transferitzeko eta foru gobernuaren diru-kutxetan ez

geratzeko lan egiten ari da".

Hesiei dagokienez, kontseilariak haxe jakinarazi die udal ordezkariari: "Nafarroako Gobernua Zezen Ikuskizunen Arautegi berria idazten hasiko da, hesien araudia hobetzeko", eta ikuskizun horietan inplikaturako eragile guztiek, hala nola udalek, FNMCren bitartez, enpresa antolatzaileek, zezen, osasun eta segurtasun arloko profesionalek edo partaideek, parte hartzea nahi duela esan du.

Azkenik, bi zuzendariak adierazi dute bileran "giro ona" egon dela. Horren harira, FNCMko lehendakariak nabarmendu du "adostasuna" antzeman duela gaietan, eta sakon lan egin behar dutela hurrengo lau urteetan irtenbidea emateko".